

7 Udal Administrazioa

IBARRAKO UDALA

IBARRAKO GUNE PUBLIKOAN HILETA OSPAKIZUNAK BAIMENDU ETA EGITEKO ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUDIA.

IBARRAKO UDALA

Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharririk aurkeztu gabe igaro ondoren, 2010eko azaroaren 30ean udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez, Ibarako Gune Publikoan hileta ospakizunak baimendu eta egiteko arautzen duen udal Arandia onetsi zen. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2011ko urtarrilaren 11.—Alkatea.

(28) (210)

Gune Publikoan Hileta Ospakizunak Baimendu eta Egiteko Arautzen duen Ordenantza.

ATARIKOA

I KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Testu honen helburua da Ibarako udalerrian hileta ospakizunak egiteko baldintzak arautzea, edozein dela pentsaera, sinismen edo ideologia.

Araudi honek arautzen ditu, batetik, halakoak egiteko arrasatearrei eskaini dakizkiekeen lekuen erabilera eta, bestetik, horiei buruzko baimenak.

II. KAPITULUA. ANTOLAKETA

2. artikulua. Lekuak.

Orokortasunez eta Ibarako udalerrian leku honetan egingo dituzte ospakizunak:

Emeterio Arrese Pilotaleku Estalian.

3. artikulua. Egunak eta orduak.

Hileta zerbitzuak egunero egin daitezke, igandetan eta jaiegunetan izan ezik.

Hiletak egiteko ordutegia: 18:00 - 20:00.

4. artikulua. Kostua.

Ibarako Udalak ez du kosturik eskatuko ospakizun hauengatik.

III. KAPITULUA. BAIMENA

5. artikulua. Baimena.

Udalak eskaintzen duen zerbitzu hau erabiltzeko, Udalak hartarako duen eskabide eredua (I. Eranskina) sinatu behar dute eta Udaleko bulego orokorretan aurkeztuz, ospakizuna egin nahi duten egunean goizeko 11:00ak baino lehen.

Edozein arrazoiengatik Udalak irizten badu ez dagoela erabiltzerik hileta ospakizuna egiteko leku bat, Udala harremanetan jarriko da eskaera egin duenarekin, egoeraren berri emateko eta beste irtenbide bat adosteko.

IV KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

6. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

Hildakoei dagokienez, indarrean dagoen araudi sanitarioa aplikatuko da.

Familiakoek edo lagunek era berezian apaindu edo egokitu gura dutenean lekua, euren kontura joango da guztia, bai muntatzea eta desmuntatzea eta geroago ingurua garbitzea, eta lekua utziko dute erabili aurretik zegoen moduan.

Araudi honetan jasota ez datorren guztian, udal arduradunen jarraibideak jarraituko dituzte.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen dio Ibarako Udalak alkateari, behar diren jardunak aurrera eramateko, araudi hau behar bezala bete dadin.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza edo araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.